

**JOSE MARI ZENDOIA SAINZ**

## Zutabe eroriak<sup>1</sup>

Hasieran lur laua zen, oparoa.  
Animaliek populatu zuten lurra, gizakiek.  
Eta jainkoak asmatu zituzten,  
eta haiantzako aldareak eraiki,  
tenpluak jaso.

Mailadia eratu zuten, eta gero  
zutabe guztiak aldi berean  
altxatu zituzten, tinko.  
Fortunaren izenean otoitzak goratu zituzten izarretara,  
eta bertuteen apologiazko esaldiak  
grabatu zituzten tenpluetako frontoietan.

Gero, suntsituak izan ziren, denak,  
gizaki harroak, haien apaizak eta etxeko animaliak,  
eta tenpluen sabaia erori ziren,  
zutabe batzuk ondoren, kapitelak lurrera.  
Zutik geratu ziren zutabe bakanak  
handikeriaren lekuko bakarrak dira,  
lur lauan eraikitako aldare hutsalen  
zentzugabekeriaren erakusle.

Baina zutabe baten ertz higatuak,  
friso erori baten moldura urratuak,  
edertasun galduaren oinordeko dira ere,  
perfekzio nahiaren arrasto gaurkotuak,  
jakin-minaren eta irrikaren irudikatze isilak.

---

1 HATSaren POESIA. Olerki Bilduma 2019. Hatsa elkartea. Senpere (Lapurdi).

## Nola<sup>2</sup>

Argi handiegia munduaren gainean,  
argi itsugarria.  
Nola ikusten diren gauzak, nola,  
hainbeste argiren azpian,  
hain izpi indartsuen garretan.  
Ura ozeanoan, harri puska bat kolpatzen,  
mendixka estaltzen duten sasietako loreak,  
haizea, ikusezina izanik ere, bazterrak astintzen;  
nola ikusten ditu gauzak  
nire atzean eseri den horrek, nola,  
inork ez badio azaldu koloreen esanahia,  
inork ez badio erakutsi naturaren indarra.  
Nola atzematen ditu hango beste gazte goibelak,  
arroken gainean galduta, antza,  
oinazpian zapaltzen dituen harrixkak  
eta haien arteko zuloak.  
Nola jasotzen ditugun guretzako  
arnastutako bafada,  
hausnartutako ideia zaparrada  
eta honek utzi zuen gogoeta hezea;  
nola zurrupatzen ditugun  
liburuek zabalduetako bihozkada mingotsak  
eta dardara ilunak.  
Ez baitakigu nola  
-argi gehiegi ezer gutxirako-,  
adimenak ez digu erakutsiko  
nola  
hunkitzen gaituen printzaren koloreak, indarrak.

---

2 HATSaren POESIA. Olerki Bilduma 2019. Hatsa elkarte. Senpere (Lapurdi).

### Hurrengo borrokaldia<sup>3</sup>

Ezker eskua gora nentorren ilargipean  
urtegiko ur urdin ilunetatik atera berria,  
harrien gainean oinak kontuz jarrita,  
aurrera,  
sasi, txintzar, sustrai eta lokatzetan  
pinudi aldera.  
Besoa jaitsi nuen  
hiruzpalau arnas sakon hartu eta bota ondoren,  
eta pinuen arteko belarretan  
astindu nituen hankak.

Azken euraldiaren tantak oraindik ere  
jausten ziren adar eta hostoen artean,  
pinaburuak zapaltzen nituen noizbehinka  
eta hotzak gero eta min handiagoa  
sorrarazten zidan.

Galduta sentitzen nuen burua  
argi izpi ahulek nekez zeharkatzen zuten  
itzal berde ilunetan,  
baina oinek bere kabuz egiten zuten bidea  
sastraka mingarrien artean.

Gaizki egindako zerbait ordaintzeko  
zigor eternalaren atal saihetsezin bat  
betearazten zidatela iruditu zitzaidan,  
existentziaren jainko ahaltsu batek  
jarritako penitentzia gogor eta oinazez betea,  
patuak garai zaharrenetatik orainaldira igorritako  
betekizun lazgarri baten ondorioa.

Baina nik ez nuen sinesten  
patu eternaletan, jainko ahaltsuengan,  
eta are gutxiago zigor eredugarrietan.  
Uretatik larri bizirik atera nintzen  
hodei arteko ilargi betearen argi azpian,  
pinudirako bidea zailtasunez burutu ahal izan nuen,  
eta orain, atsedean apur bat besterik ez nuen nahi,  
oinak epeletan jarri, gorputza babestu,  
basafruituren bat arretaz dastatu  
eta hurrengo borrokaldirako  
nire burua prestatu.

Hori besterik ez.

---

3 HATSaren POESIA. Olerki Bilduma 2017. Hatsa elkarte. Senpere (Lapurdi).

## Uharte galduak<sup>4</sup>

Lantokiko leihotik  
urte berriko hodei beltz astunak  
igarotzen ikustean,  
oroimenean dut  
hodeirik gabeko egun galduen zoriona.

Antzera,  
liburuen orrietako hizkien artean  
agertzen zara behin eta berriz  
nire arimaren zauria irekitzen,  
eta bitartean gogoan ditut  
hizkirik gabeko gutunen  
eta hitzik gabeko gau galduen poza.

Alexandriako poeta zaharraren olerkietan  
atzematen dut nire fantasma erraria  
bizitza aseko dion bakearen bila.  
Jakinik hodei beltz astunak  
begiradaren aurrean igarotzen direnean  
den dena eramaten dutela haiekin  
itsasoan galdutako uharteetara.

Hodei astun beltzak igarotzen dira gaur leihoaren beste aldetik.  
Burura datorkit uda:  
hogei eguneko bidaiari hodei bakar bat ikusi genuen  
urdin infinituan, uharte galdua zeruan.

---

4 HATSaren POESIA. Olerki Bilduma 2018. Hatsa elkarte. Senpere (Lapurdi).

## **Azkenean!**<sup>5</sup>

*Azkenean* hitzarekin hasteak esan nahi du  
horren aurretik zerbait egon dela,  
agian gogoeta huts bat besterik ez,  
itsasoko olatuen eztanda (berriro ere),  
edo kalean gazte ezezagun batek  
luzatutako irri xalo eta lagunkoia.

*Azkenean* hitzarekin hasteak agian esan nahi du  
liburu bat irakurri berri duzula,  
barruraino sartu zaizun istorioren batek  
negar egin arteraino ukitu zaituela.  
Edozein modutan,  
azkenean ezin duzu gehiago  
eta orri zuriaren aurrean jartzen zara,  
erdi negarrez edo negar oparo batean.

Zer da ba gertatu dena?  
Nola iraun ahal izan duzu horrenbeste,  
azkenean erabakia hartu duzun arte?  
Orain beldur zara,  
gazte ezezagunaren irriak,  
liburuko istorioak  
edo kostaldeko enbatak beldurtzen zaituztela  
uste duzun honetan,  
azkenean ulertu baituzu ikara  
bularraldeko zulo argitsutik datorrela  
barruan daramazun mamua  
aurrez aurre begira jarri zaizunean.

Eta ispilua ez da hautsi.

---

5 HATSAREN POESIA. Olerki Bilduma 2018. Hatsa elkarte. Senpere (Lapurdi).

### **Sugegorria<sup>6</sup>**

Ikusi badut noizbait sugedorria  
pinudia eta galsoroaren arteko bidean,  
eten dut nire ibilera une batez  
edertasunaz gozatzeko:  
garia horizatzen hasia,  
ezkaia indarrez loratua  
eta kukuaren udaberriko kantua.

Ikusi badut sugedorria bidean,  
makurtu naiz eta poliki eseri,  
edozein pinuren sustrai erdi-lurperatuan  
nire beldurrak uxatzeko,  
eskuak lurraren gainean zabaldu ditut  
lur azpiko dardara txikienek  
nire izatearekin bat egin dezaten,  
eta sugedorriari, alfonbra gorria ezean,  
nire behatzak eskaini dizkiot  
haien gainean ernai  
bere ibilbide tolestua jarrai dezan.

---

6 HATSaren POESIA. Olerki Bilduma 2017. Hatsa elkarte. Senpere (Lapurdi).

## **Liebesträume**

Kolore batek bestera narama,  
orainaldi luze honetan  
Rubiken kuboari azalerak biratzen,  
esku arteko osagaiak lerrotu nahian.

Ur urdinetan nago, zero garbiaren azpian,  
edo garagar soro agortu baten erdian  
unibertsoa okre hori bihurtzen denean,  
bestela, udaberriko baso berdeek estalita.

Nota batek bestera narama,  
eskalaren harmoniari akorde disonanteak lapurtuz,  
doinuaren eta erritmoaren mugimendu konpasatuan,  
tarteka oldartuta, tarteka haize leunak eramanda.

Zuri-beltzaren gainean kolore infinituak.  
Hamabi noten artean musikaren osotasuna.  
Maitasun ametsak, gauez,  
koloreak laztantzen, doinuak gorpuzten,  
kontsolamendu bila.



### **Sarajevoko tranbiaren zain**

Geltokian jende tristea  
tranbia noiz etorriko zain.  
Burdinbidea asfaltoan txertatuta  
eta espaloiko zuloak urez beteta;  
putzuetan islatzen dira autoak.  
Tranbia hurbiltzean ere  
putzuan bere irudia kale grisaren erdian.  
Kolore galduak, hodei ilunak,  
zuhaitzetako adarrak biluzik neguan,  
zubietako petriletan txolarreak geldirik  
ogi papur baten zain agian.  
Bidaiarien aurpegi lausoek  
ez dute ezer adierazten,  
ilusiorik ez, tristurarik ere ez,  
bizitzaren joana tranbiarena bezalakoa delako:  
metro batzuk aurrera,  
geltokian itxaron,  
bidaidez aldatu,  
aurrera berriro, tarteka azkarrago,  
eta ibilbidearen amaieran buelta eman,  
etengabe joan-etorri bera,  
espaloi estu zulatuen ondoan,  
burdinbidea putzuen artean galduta.